

Erabakia, 2017ko abenduaren 14koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearena. Honen bidez, BILBOKO INGENIARITZA ESKOLA Ikastetxe edo Zerbitzurako F 629 Arloaren arduraduna lanpostua zerbitzu betekizunetan aldi batez betetzeko, **IZANGAIEN BEHIN-BEHINEKO PUNTUAZIOA** argitaratzen da.

### UPV/EHUko Gerentearen 2017ko azaroaren 10eko deialdia

AZP funtzionarioaren plangintza batzordeak, 2014ko uztailaren 1ean hartutako Akordioan AZP funtzionarioari zerbitzuen betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzen da. Akordio hau Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak berretsi zuen eta 2014ko abuztuaren 27ko EHAAn argitaratu zen. Akordioak 7. artikulua 1. atalean ezartzen duenari jarraituz, Gerentzia honek

### ERABAKI DU:

Aipatutako deialdian izangaien puntuazioak UPV/EHUko web orrian argitaratzea, Administrazio eta zerbitzuetako langileak. Hautaketa eta Hornikuntza. Barne-deialdiak.

Izangaiek bi laneguneko epea izango dute puntuazioak UPV/EHUko web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, erreklamazioak aurkezteko, baita uko egiteko.

Gogorarazi nahi da UPV/EHUko erregistro orokorraren atalen ordutegia hauxe dela: Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 16:30etara. Ostiraletan, udako lanaldian eta Aste Santuko eta Eguberrietako txandetan, 9:00etatik 13:00etara

Leioan, 2017ko abenduaren 14an

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2017ko urtarrilaren 25eko erabakia (2017ko otsailaren 3ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

UPV/EHUko Gerentea

Miren Lorea Bilbao Arteché



